

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

9580 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 11/2015 Legea, ekainaren 18koa, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearena.*

Hutsa atzeman da Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearen ekainaren 18ko 11/2015 Legean, zeina *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 2015eko ekainaren 19ko alean (146. zk.) argitaratu baitzen. Honen bidez, zuzenketa hau egiten da:

97. orrialdean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 2. zenbakiaren d) letran —azken xedapenetatik bosgarrenaren bidez aldatua—, hau dioen lekuan: «d) Kreditu-erakundeen Espainiako legeria Banku Koordinaziorako Bigarren Zuzentarauari Egokitzeko Legearen (apirilaren 14ko 3/1994) bosgarren xedapen gehigarria.»; hau esan behar du: «d) Enpresa Finantzaketa Sustatzeko 5/2015 Legearen 16.4 artikulua eta laugarren xedapen gehigarriaren 7. zenbakia.»